

BERRIAK BERRI

Anoetako
udal aldizkaria

89 zenb.
2026ko uztaila



GAZTEEN AHOTSA,
GUZTION ANOETA

Tsunami

Egoitz Luisa Urkola

Anoetako alkatea



Tsunami oro arriskutsua da. Mehatxua eta ondorio larriak ekar ditzake, batzuetan baita ondorio tragikoak ere. Askotan urrutiko herrialdeekin lotzen ditugu halako irudiak, Indonesiarekin edo munduko beste bazter batzuekin. Pentsa liteke Anoeta bezalako barnealdeko herri batean halako arriskurik ez dagoela. Hala ere, azken asteotan beste mota bateko tsunami baten eragina sentitu dut. Ez naturaren indarrarena, baizik eta futbolaren inguruan sortutako olatu mediatiko eta sozialarena. Espainiako selekzioak Munduko Kopa irabazi ondoren sortu den giroak hausnarketarako bidea eman dit. Errespetu osoa diet beren herria maite duten eta beren selekzioaren alde egiten duten adierazpenei. Hori zilegia da. Baina zailagoa egiten zait normaltasunez

bizitzea gure herriaren aitortza ukatzen denean, edo Euskal Herriak bere selekzio propioa izan dezan egiten den ahalegina sistematikoki oztopatzen denean. Testuinguru horretan, kanpoko selekzio baten garaipena gurea balitz bezala aurkezteko egiten diren saiok ez dute aniztasuna edo errespetua sustatzen. Are gehiago, diskurtso hori ia hedabide guztietatik etengabe zabaltzen denean, bestelako ikuspegiak bigarren mailan utziz. Anoeta euskararen arnagunea da, eta harro gaude horretaz. Horrek erakusten digu gure hizkuntza ez ezik, gure nortasuna eta gure ikuspegia ere zaindu eta indartu behar ditugula, betiere errespetuan eta elkarbizitzan oinarrituta. Duela egun gutxi Bergaran izan nintzen, foruen abolizioaren 150. urteurrena eta 1976an alkateek abiatu zuten

mugimenduaren 50. urteurrena gogoratzeko ekitaldian. Bertan nabarmendu zen gaur egungo udal ordezkariok konpromisoa dugula Euskal Herriaren memoria historikoarekin, autogobernuaren garapenarekin eta gure nazio izaeraren aitortzarekin. Era berean, euskal herritarrek beren etorkizuna askatasunez erabakitze eskubidearen alde lan egiteko konpromisoa berretsi genuen.

Anoetan ez dugu itsasorik, eta ez dugu benetako tsunamien mehatxurik. Baina Euskal Herriak badu kostaldea, eta baditu bestelako olatuei aurre egiteko erronkak ere. Horregatik, alkate gisa, nire konpromisoa argia da: gure hizkuntza, gure nortasuna eta gure herriaren eskubideak defendatzen jarraitzea, betiere errespetuz, elkarbizitzaren bidez eta guztion arteko bizikidetzaz sendotuz.

Cualquier tsunami es peligroso. Puede suponer una amenaza y traer consigo consecuencias graves, a veces, incluso trágicas. A menudo asociamos este tipo de imágenes con países lejanos, con Indonesia o con otros rincones del mundo. Podría pensarse que en un pueblo de interior como Anoeta no existe tal riesgo.

Sin embargo, durante las últimas semanas he sentido el impacto de otro tipo de tsunami. No el de la fuerza de la naturaleza, sino el de la ola mediática y social generada alrededor del fútbol. El ambiente surgido tras la victoria de la selección española en la Copa del Mundo me ha llevado a la reflexión. Siento un respeto absoluto hacia las expresiones de quienes aman a su país y apoyan a su selección. Eso es legítimo. Pero me resulta más difícil vivir con normalidad cuando se

niegue el reconocimiento de nuestro pueblo, o que se obstaculiza sistemáticamente el esfuerzo para que Euskal Herria cuente con su propia selección. En este contexto, los intentos de presentar la victoria de una selección ajena como si fuera nuestra no promueven la diversidad ni el respeto.

Más aún, cuando este discurso se difunde desde la inmensa mayoría de los medios de comunicación, relegando otros puntos de vista a un segundo plano. Anoeta es un espacio vital del euskera, y nos sentimos orgullosos y orgullosas de ello. Esto nos demuestra que no solo debemos cuidar y fortalecer nuestra lengua, sino también nuestra identidad y nuestra visión, siempre desde el respeto y la convivencia.

Hace pocos días estuve en Bergara, en el acto conmemorativo del 150.º aniversario de la abolición de los fueros y el 50.º aniversario

del movimiento iniciado por los alcaldes y las alcaldesas en 1976. Allí se remarcó que los actuales representantes municipales tenemos un compromiso con la memoria histórica de Euskal Herria, con el desarrollo del autogobierno y con el reconocimiento de nuestra identidad nacional. Del mismo modo, reafirmamos el compromiso de trabajar a favor del derecho de la ciudadanía vasca a decidir su futuro en libertad.

En Anoeta no tenemos mar y no sufrimos la amenaza de tsunamis reales. Pero Euskal Herria sí tiene costa y también el reto de hacer frente a otro tipo de oleajes. Por ello, como alcalde, mi compromiso es claro: seguir defendiendo nuestra lengua, nuestra identidad y los derechos de nuestro pueblo, siempre desde el respeto, el diálogo y el fortalecimiento de la convivencia entre todos y todas.

ELKAR-ZAINTZA



'Anoeta, elkar zainduz': komunitatea sendotzeko sukalde-lana abian da

Gure gizartearen bilakaera demografikoak —zahartze tasa altuek edota bizi itxaropena luzatzeak— zaintza ereduaren inguruko hausnarketa sakona eskatzen du. Errealitate horri erantzuteko eta aurreko udal aldizkarian aurkeztutako Zaintza Planaren lan-lerroei jarraipena emanaz, 'Anoeta, elkar zainduz' ekimenak aurrera jarraitzen du herrian zaintza eredu publiko-komunitario berri bat ehuntzeko.

Bakarne Garmendia zinegotziak azaldu duenez, une honetan "sukalde lanetan" ari dira batez ere; hau da, barrura begirako antolaketa lanetan eta etorkizunean elkar zainduko duen komunitate errotuago bat lortzeko oinarriak finkatzen. Horretarako eratutako talde eragilean, udal ordezkariak gain, hainbat osasun agente, gizarte zerbitzuetako ordezkariak eta herritarrek ari dira elkarlanean. Garmendiak taldearen izaera irekia azpimarratu nahi izan du, norbanako oro parte hartzera gonbidatuz: "Izan ere, denok, bizitzako unerik batean, zaintzaileak eta zainduak izan beharko dugu".

Ekimen honen muina eguneroko harremanak eraldatzea da, antolaketa tradizionaletik haratago joanez. "Zer nahi dugu? Egunerokoan elkar zaintzen lagunduko diguten espazio eta keinu txikiak sortu nahi ditugu. Lagunduta sentitu, elkar hobeto ezagutu eta egunerokoan elkar zaindu", gaineratu du zinegotziak.

Neguan zehar herritarren artean egindako galdetegiari esker, zaintza ereduaren egungo errealitatea xehetasunez ezagutzeko diagnostikoa osatu da. Hurrengo pausoa herri hausnarketa fasea zabaltzea izango da. Aurrerago, prozesuaren baitan aurreikusitako Zaintza Mahaia eta Zaintza Topaketa irekiak abiatuko dira, herriko beharrak konpartitzeko eta beste herri batzuetako esperientzia inspiragarriak ezagutzeko.

'Anoeta, elkar zainduz': arranca el trabajo de gestión interna para fortalecer la comunidad

El cambio demográfico actual exige una profunda reflexión sobre el modelo de cuidados. Dando continuidad a las líneas de trabajo del Plan de Cuidados presentadas en la anterior revista municipal, la iniciativa 'Anoeta, elkar zainduz' sigue avanzando hacia un modelo público-comunitario en el municipio.

La concejala Bakarne Garmendia explica que actualmente se encuentran en fase de "trabajo de cocina", centrados en la organización interna para consolidar las bases de una comunidad más cohesionada. En el grupo motor que guía el proceso participan, además del Ayuntamiento, agentes de salud, servicios sociales y ciudadanía. Garmendia recalca el carácter abierto del grupo: "En algún momento de la vida, todos/as seremos cuidadores o necesitaremos ser cuidados". El objetivo es generar espacios y pequeños gestos cotidianos que ayuden a la población a conocerse mejor, sentirse acompañada y protegerse mutuamente.

Tras el cuestionario realizado en invierno para analizar la realidad local, el diagnóstico está completado. El siguiente paso será abrir la fase de reflexión ciudadana. Más adelante, se activarán las herramientas previstas como la Mesa de Cuidados y los Encuentros abiertos para compartir necesidades y conocer experiencias inspiradoras de otros municipios.

GAZTERIA SAILA



Anoetako haurrak eta nerabeak herriko subjektu aktibo bihurtzeko apustu kolektiboa

Orain arte, ondoeza eta ongizatea aurkako ideia bezala ulertu ditugu eta arazoak agertu arte itxaron izan dugu planak abiatzeko. Egun badakigu, ordea, ongizatea eremu zabalagoa dela: eguneroko harremanetan, parte-hartzean, segurtasunean eta babes-sareetan eraikitzen da. Haur eta nerabeak ingurune seguru eta zainduetan hazten direnean, gaitasun handiagoak garatzen dituzte etorkizuneko arriskuei aurre egiteko.

Haurrak komunitatetik hezi

Prebentzioa ez da arriskuei buruz hitz egitea soilik; loturak sortzea da, konfiantzazko helduak gerturatzea eta komunitatean lekua dutela sentitzea. Aisialdia, bide horretan, eremu estrategikoa da. Jolasaren bidez autonomia eta kide izatearen sentsazioa lantzen dute. Horregatik, Anoetako eremuak hezigarriagoak eta inklusiboagoak izateko, haurrekin lan egiten duten eragileekin koordinazio prozesu bati ekin diogu, etorkizuneko ibilbide partekatua marrazteko. Datorren ikasturteari begira, Gazteria Sailak haurrei zuzendutako

aisialdi zerbitzuak indartzeko apustu irmoa egingo du, egiturazko kalitatezko baliabideak sendotuz eta prebentzioan oinarrituz.

Nerabeak erdigunera

Azken hilabeteetan herriko hainbat eragilearekin elkartu gara nerabeen egoeraz hitz egiteko. Kezka nagusiak gazteen presentzia txikia, parte-hartzearen beherakada, sare sozialen eragina eta adin arteko loturen ahultzea izan dira. Diagnostiko honetatik jaio da Gazteen Anoeta. Proiektu honen helburua ez da gazteentzat ekintzak antolatzea, haiekin batera diseinatzea baizik, subjektu aktibo gisa. Norabide

berean elkartu gara gaztelekua, ikastola, gazte asanblada, kale hezitzaileak eta udaleko sailak.

Uda honetarako egitarau parte-hartzaile bat diseinatu genuen nerabeekin, baina azkenean ez da espero genuen parte-hartzerik egon. Hala ere, egindako bidea oso aberatsa izan da: eragileen arteko elkarlana sendotu da, DBH3ko ikasleek antolaketan parte hartu dute eta galdera garrantzitsu bati heldu diogu herri gisa: zer behar dute gaur egun Anoetako nerabeek eta zer eskaini diezaiekegu?

Gurasoen eta herriaren papera

Proiektu honek aurrera egiteko gurasoen laguntza ezinbestekoa da; etxean honetaz hitz eginez, interesa erakutsiz eta haien ideiak entzunez. Nerabeek helduon begirada behar dute, baina ez kontrolatzeko, konfiantza emateko baizik.

Gazteen Anoeta herri oso baten apustua da. Nerabeek herrian lekua dutela sentitzeko eta etorkizuneko Anoeta elkarrekin pentsatzeko aukera bat.

Garteria

Ingizatea

Ingizatea eguneroko harremanetan, parte hartzeko aukeretan, segurtasun sentimentuan eta komunitatearen babes-sareetan eraikitzen da.

Haurrak

Aisia

Aisialdia eremu estrategikoa da, horregatik, Anoetako Udalak eremu hezigarri, inklusibo eta seguruak sustatu nahi ditu, haurrekin harremanetan dauden tokiko eragileekin koordinazio eta garapen prozesu bat eginez.

Nerabeak

Gazteon Anoeta

Hainbat kezka komun identifikatu ostean jaio zen Gazteon Anoeta; nerabeak herriko bizitzako subjektu aktibotzat hartzen dituen proiektua da, eta ez jardueren hartzaile soil gisa. Helburua haiekin batera diseinatzea eta eraikitzea da, eta ez haientzat.

Urratsak

Nerabeei zuzendurik dauden tokiko eragileen sarea sendotu da eta DBH 3. mailako ikasleek parte hartu dute anyolaketa eta komunikazio lanetan. Gazteen ekarpen baliotsuak jaso dira hurrengo urratsak pentsatzeko.

Helduak

Familiek ezinbesteko papera duzue. Haur eta nerabeen komunitateak helduen begirada behar du, konfiantzan eta bidelaguntzan oinarritutako begirada bat.

Apuesta colectiva para activar a la infancia y juventud de Anoeta

El bienestar no es solo la ausencia de problemas; se construye en las relaciones diarias, la participación y las redes de apoyo comunitario. Cuando los niños y las niñas crecen en entornos seguros y cuidados, desarrollan herramientas para afrontar el futuro. Por ello, el ocio es estratégico para fomentar su autonomía.

Con esta visión nace **Gazteon Anoeta**, un proyecto que une a agentes locales (gazteleku, ikastola, educadores y Ayuntamiento) para situar a las personas adolescentes como sujetos activos, co-diseñando iniciativas con ellos y ellas. Aunque el programa de verano no tuvo la participación esperada, el proceso ha fortalecido la red local y abre una reflexión sobre sus necesidades actuales. De cara al próximo curso, el departamento de Juventud reforzará los servicios de ocio infantil desde un enfoque preventivo.

HERRIA ERABERRITZEN



Ikastolako pilotalekua hiri-arte bidez berritu dute, Balu artistaren eta ikasleen eskuz

Ikasturtea borobiltzeko, Anoetako Ikastolako ikasle talde batek eskolako pilotalekuaren inguruko hormak margotu ditu Balu artista gipuzkoarrarekin batera. Emaiztarekin “oso gustura” gelditu dira protagonistak, herriko kirol-gune bati bizi berria emanez.


Anoetako Udalak, Ikastolarekin elkarlanean, sormen-prozesu kolektibo bat abiatu nahi izan du ikasturte amaiera honetan, eta Balu artistarengana jo zuen pilotaleku alboko horma biluziak atontzeko asmoz. Hasierako asmoa pilotaren inguruko motiboak marraztea bazen ere, sormen-prozesuan zehar ideia zabaltzeko eta aberastuz joan da. Azkenean, esku-huskako pilota bat eta xixtera edo saski bat ez ezik, beste hainbat euskal kirol eta herri-kirol ere irudikatu dituzte frontoiaren bueltan: harrijasotzaile bat eta sokatira talde bat, besteak beste. Genero ikuspegia ere zaindu dute, kirolarietako batzuk emakumezkoak direlako.

Teoria eta txantiloien teknika

Margotzen hasi aurretik, ordea, ikasleek atal teoriko bat landu dute artistarekin. Baluk bere ibilbide luzea azaldu die, pintura teknika ezberdinak eta horien

xehetasunak erakutsiz, kale-artearen testuingurua ezagutu zezaten. Behin hormaren aurrean jarrita, plantillen edo txantiloien teknika erabili dute irudiak gorpuzteko: aurrena, eredu batzuk diseinatu zituzten taldean eta, ondoren, txantilo horiek baliatuz joan dira hormak margotzen. Irudiei bolumena eta sakonera emateko, gris tonu ezberdinak erabili dituzte. Emaizta zuri-beltzekoa da, kontraste handikoa —Balu artistaren lanetan ohikoa den zigilua—, eta itxura oso indartsua hartzen du frontisaren kolore gorriaren alboan.

“Ikusi dute plantillen teknika ez dela horren erraza, baina oso ondo moldatu dira”, kontatu du Baluk. Artistak 30 urtetik gorako esperientzia du eta ohituta dago gazteekin lan egiten, ikasleekin lan ugari egiteaz gain, unibertsitatean ere aritutakoa baita eta sortzaile hasiberriekin hainbat mentoría lan egina baitago. “Polita da ikasleekin jardutea. Hasieran lotsati xamarrek izaten dira, baina behin margotzen hasita, denek probatu nahi dute sprai”, gaineratu du umorez. Ikasleek ere oso gustura jardun dutela kontatu dute, ikasgelatik atera eta herriko espazio publiko bat eraldatzeko aukera izan dutelako. Elkarlan honi esker, kirola, euskal kultura, genero ikuspegia eta gazteak uztartu dira, ikasleek euren ikastetxean eta Anoetan aztarna artistiko iraunkor bat utziz.



El frontón de la Ikastola se renueva a través del arte urbano, de la mano del artista Balu y el alumnado

Como broche de oro al curso escolar, un grupo de alumnos y alumnas de Anoetako Ikastola ha pintado las paredes del entorno del frontón junto al artista guipuzcoano Balu. Los protagonistas se han mostrado “muy satisfechos” con un resultado que llena de vida este espacio deportivo.

El Ayuntamiento de Anoeta, en colaboración con la Ikastola, ha querido poner en marcha un proceso creativo colectivo en este final de curso, y para ello recurrió al artista Balu con el objetivo de acondicionar las paredes anexas al frontón. Aunque la intención inicial era dibujar motivos exclusivamente vinculados a la pelota vasca, la idea fue expandiéndose y enriqueciéndose durante el proceso. Finalmente, además de una pelota a mano limpia y una cesta punta o xixtera, han representado varios deportes vascos y herri-kirolak en torno al frontón, como una harrijasotzaile (levantador de piedras) y un equipo de sokatira, entre otros.

Teoría y la técnica de las plantillas

Sin embargo, antes de empezar a pintar, el alumnado trabajó una parte teórica con el artista. Balu les explicó su larga trayectoria

y les mostró diferentes técnicas de pintura y sus detalles, para que conocieran de cerca el contexto del arte urbano. Una vez ante la pared, han utilizado la técnica de las plantillas o estarcido para dar forma a las imágenes: primero diseñaron en grupo unos modelos previos y, posteriormente, pintaron las paredes valiéndose de dichos moldes. Para dar volumen y profundidad a las figuras, han utilizado diferentes tonos de gris. El resultado es una obra en blanco y negro, de gran contraste —un sello habitual en los trabajos de Balu—, que adquiere una fuerza especial junto al característico color rojo del frontis.

“Han visto que la técnica de las plantillas no es tan sencilla, pero se han amoldado muy bien”, explica Balu. El artista cuenta con más de 30 años de experiencia y está acostumbrado a trabajar con jóvenes; además de realizar numerosos proyectos con estudiantes, ha impartido clases en la universidad y ha ejercido de mentor con creadores noveles. “Es bonito trabajar con estudiantes. Al principio suelen mostrarse un poco tímidos, pero una vez que empiezan a pintar, todos quieren probar el spray”, añade con humor.

Por su parte, los alumnos y alumnas también han manifestado haber disfrutado mucho de la experiencia, valorando positivamente salir del aula para transformar un espacio público del municipio. Gracias a esta colaboración, se han entrelazado deporte, cultura vasca, igualdad de género y juventud, permitiendo al alumnado dejar una huella artística permanente tanto en su centro escolar como en Anoeta.

INGURUMENA

Anoetako Udalak eta EHKOlektiboak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, trantsizio ekologikoaren eta agroekologiaren bidean

Akordio honen bidez, elkarteak aholkularitza tekniko eta soziala emango dio Udalari tokiko elikadura sistema indartzeko, eta 2026ko Euskal Jairen antolakuntzan bidelagun izango da.

Anoetako Udalak eta EHKOlektiboak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute udalerrian trantsizio ekologikoaren bidean urrats sendoak ematen jarraitzeko. Haizea Bengoetxea elkarteak lehendakariak eta Udalak berretsitako akordio honek gizarte zuzenago, parte-hartzaileago eta jasangarriago bat eraikitzea du helburu, elikadura burujabetza sustatzearen eta agroekologiaren baloreak jendarteratzearen aldeko apustua eginez. Bi alderdientzat, agroekologia ez da helmuga bat, komunitate bizien eta lur emankorraren arteko harreman orekatua berreraikitze bidea baizik. Hitzarmenaren xede nagusia bikoitza da. Alde batetik, EHKOlektiboak aholkularitza tekniko eta orientazioa emango dio Udalari tokiko elikadura sistemari lotutako politika eta proiektuetan, betiere hurbileko produktuen kontsumoa eta baserri-mundua sustatzeko. Bestetik, elkarteak zuzenean inplikatu da 2026ko Euskal Jairen antolakuntzan. Udalarekin eta Euskal Jairen Batzordearekin elkarlanean arituko da bertan parte hartuko duten laborarien hautatze- eta kontaktatze-

prozesuetan, proiektu horiek agroekologiaren bidean ari direla bermatzeko. Horretarako, irizpide argiak erabiliko dira: proiektuaren tamaina (pertsonen neurrikoa), maneia (ekologikoa), distantzia (gertukoa) eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearekin duten engaiamendua.

Balio sozialak eta udal konpromisoa

EHKOlektiboaren jardunak berezkoak ditu euskaltzaletasuna, genero-parekidetasuna, ingurumenaren errespetua eta auzolana. Horregatik, hitzarmenak berresten du ekimen guztietan euskara hutsezko komunikazioa eta herritarren parte-hartze irekia bermatuko direla.

Bere aldetik, Anoetako Udalak 1.000 euroko dirulaguntza bideratuko du aholkularitza-lan hauek finantzatzeko, eta elkarteari udal-espazioak eta azpiegiturak doan lagako dizkio jarduerak garatu ahal izateko. Horrez gain, prozesuaren jarraipen egokia egiteko, Jarraipen Batzorde bat sortuko da, Udaleko eta elkarteak kideekin, eta gutxienez sei hilean behin bilduko dira hitzarmena egoki betetzen dela ziurtatzeko. Akordioak 2026ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du.



El Ayuntamiento de Anoeta y EHKOlektiboa firman un convenio de colaboración hacia la transición ecológica y la agroecología

A través de este acuerdo, la asociación ofrecerá asesoramiento técnico y social al Consistorio para fortalecer el sistema alimentario local, y colaborará en la organización de la Euskal Jaia 2026.

El Ayuntamiento de Anoeta y EHKOlektiboa han firmado un convenio de colaboración para seguir dando pasos firmes hacia la transición ecológica en el municipio. Este acuerdo, ratificado por el Ayuntamiento y la presidenta de la asociación, Haizea Bengoetxea, tiene como objetivo construir una sociedad más justa, participativa y sostenible, apostando por el fomento de la soberanía alimentaria y la socialización de los valores de la agroecología. Para ambas partes, la agroecología no es una meta, sino el camino para reconstruir una relación equilibrada entre las comunidades vivas y la tierra fértil.

El objeto principal del convenio es doble. Por un lado, EHKOlektiboa ofrecerá asesoramiento técnico y orientación al Ayuntamiento en las políticas y proyectos relacionados con el sistema alimentario local, promoviendo siempre el consumo de productos de proximidad y el mundo del caserío. Por otro lado, la asociación se implicará directamente en la organización de la Euskal Jaia 2026. Colaborará con el Ayuntamiento y la Comisión de la Euskal Jaia en los procesos de selección y contacto de los y las agricultoras participantes, garantizando que sean proyectos integrados en la agroecología. Para ello se tendrán en cuenta criterios claros: el tamaño del proyecto (a escala humana), el manejo (ecológico), la distancia (cercana) y el compromiso con la Economía Social Transformadora.

Valores sociales y compromiso municipal

La actividad de EHKOlektiboa lleva implícita el impulso del euskera, la equidad de género, el respeto al medio ambiente y el trabajo comunitario (auzolan). Por ello, el convenio ratifica que en todas las iniciativas se garantizará la comunicación exclusivamente en euskera y la participación abierta de la ciudadanía.

Por su parte, el Ayuntamiento de Anoeta destinará una subvención de 1.000 euros para financiar estas labores de asesoramiento, y cederá gratuitamente a la asociación los espacios municipales e infraestructuras necesarias para el desarrollo de las actividades. Además, para realizar un correcto seguimiento del proceso, se creará una Comisión de Seguimiento, compuesta por representantes del Ayuntamiento y de la asociación, que se reunirá al menos cada seis meses para asegurar el cumplimiento del convenio, el cual estará vigente hasta el 31 de diciembre de 2026.

HERRI JASANGARRIA



Consulta pública para la ordenanza de funerales civiles

El Ayuntamiento de Anoeta ha iniciado el proceso para regular los funerales y homenajes civiles con el fin de garantizar despedidas dignas y laicas. Antes de redactar el texto, se abre una consulta pública para recoger aportaciones ciudadanas. La norma definirá los espacios (Herriko plaza y sala Lasarbe), trámites, horarios e igualdad de acceso. La propuesta de la teniente de alcalde está disponible en anoeta.eus

Hileta eta omenaldi zibilak arautzeko ordenantza berriaren inguruko kontsulta publikoa abiatu du Udalak

Anoetako Udalak hileta edo omenaldi zibilak egiteko erregulazio berri bat garatzeko prozesua jarri du martxan. Arauaren testua idatzi aurretik, herritarren eta erakundeen iritzia eta ekarpenak jasotzeko kontsulta publikoko epea ireki da.

Gizartearen aniztasun ideologiko, erlijioso eta kulturalari erantzunez, gero eta handiagoa da erlijio-izaerarik gabeko azken agur edo omenaldi duin eta pertsonalak egiteko eskaera. Gaur egun, Anoetako Udalean ez dago horrelako ekitaldiak eta espazioen erabilera arautzen duen ordenantza espezifikorik. Absentzia horrek herritarrentzat zein administrazioarentzat segurtasun juridiko eza sor dezakeenez, Udalak ordenantza autonomo eta espezifiko bat sortzearen aldeko apustua egin du.

Zer arautuko du ordenantza berriak?

Etorkizuneko araudiak hainbat alderdi zehaztea du helburu nagusi:

- **Espazioak:** Ekitaldiak egiteko erabiliko diren gunek argitzea (hasiera batean, Herriko plazako estalpea eta Lasarbe aretoa proposatu dira).
- **Prozedura eta Baldintzak:** Eskaerak nola tramitatu, zer dokumentu aurkeztu eta baimenak emateko irizpideak finkatzea, betiere berehalakotasun printzipioari lotuta.
- **Berdintasuna:** Herritar guztien berdintasuna eta ez-diskriminazioa bermatzea zeremonia hauetarako sarbidean.
- **Kudeaketa:** Erabili beharreko materialak, ordutegiak eta instalazioen kontserbazio egokia arautzea.

Alkateordearen proposamena irakurgai dago anoeta.eus webgunean. Udalak anoetar guztiak eta herriko talde zein erakundeak gonbidatzen ditu prozesu honetan parte hartzera.

OSASUNGINTZA



Tolosaldeko alkateen mugimenduak Osasun Sailaren plana errefusatu eta Asuncion Klinika publikatzea eskatu du

Tolosaldeko Alkateen Mugimenduak —tartean Egoitz Luisa Urkola Anoetako alkatea dagoelarik—dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eskualderako prestatutako plan funtzionalari buruzko proposamenak ez diela Tolosaldeko osasun beharrei erantzuten eta zerbitzuen murrizketa dakarrela.

Udal ordezkariak kezka adierazi dute proposatutako azpiegitura ez dela eskualdeko ospitale oso bat, Donostiako ESlaren menpeko zentro sozio-sanitario bat baizik.

Salatu dutenez, plan honekin gaur egungo zerbitzuak nabarmen murriztuko lirateke: akutuen ospitalea desagertu egingo litzateke kronikoentzako zentro bat bihurtzeko (Asuncionek gaur egun dituenak baino 30 ohe gutxiagorekin), eta kirurgia orokorra zein traumatologia ere desagertu egingo lirateke, ebakuntza txikietara mugatuz.

Gainera, alkateek informazio falta eta prozesuan parte hartzeko aukerarik ez izana salatu dute. Planak ez du argitzen Tolosaldeko ESlaren etorkizuna, ezta Tolosako anbulatorioarena ere; horrek herritarren irisgarritasuna kaltetuko luke, Donostiako ospitalearen saturazioa areagotuz.

Egoera honen aurrean, mugimenduak berriro eskatu du Asuncion Klinika publikatzeko aukera modu serioan aztertzea. Bide horrek azpiegitura eta bertako profesionalak baliatzea ahalbidetuko luke, langileen etorkizunari egonkortasuna emanez eta zerbitzu publikoaren jarraitutasuna bermatuz, kontuan izanik bost urte barru klinika itxi egingo dela.

Alkateek argi utzi dute Tolosaldeko herritarrek gainerako eskualdeen kalitate-, gertutasun- eta zerbitzu-maila bera merezi dutela, baita osasun arreta euskalduna jaso ere. Horregatik, Osasun Sailari eskua luzatu diote berriro, kritika eta proposamenak entzun ditzan eta eskaintza berraztertu dezan.

Los alcaldes de Tolosaldea rechazan el plan de Salud

El Movimiento de Alcaldes de Tolosaldea, que incluye al alcalde de Anoeta, rechaza el plan funcional del Departamento de Salud al considerar que recorta servicios y no cubre las necesidades de la comarca. Denuncian que el centro propuesto reduce las camas agudas, elimina cirugías mayores y carece de participación ciudadana. Ante esto, el movimiento exige estudiar la publicación de la Clínica Asunción para garantizar una atención pública, cercana y en euskera.

JAIK



Herri giro ederra izan dugu Anoetako festetan

Maiatzeko azken asteburuan beroketa lanak egin ostean, Ttipi-Ttapa ekimenekoek eman zieten Anoetako jaiari hasiera ekainaren 3an. Gainera, hilabeteko lehen asteazkena zenez, txangoa egiteko ere baliatu zuten. Igandera arte, ederki pasa genuen ekintza ezberdinetan: Mozorro eguna, gazteena, kultur eskaintza zabala, kirol eta gastronomia jarduerak... Mila esker festetako ekintza ezberdinetan parte hartu zenuten guztiei. Halere, jaiak izan dute puntu beltzik: komun publikoari eraso egin eta erabat suntsitu zen. Batzuen astakeriagatik herriak zerbitzua galdu du aste batzuetan; jai giroa ez da jarrera desagokiak zuritzeko aitzakia.

Eraso sexisten aurkako protokoloa aktibatu da

Festetako lehen asteburuan hainbat emakumek gizon baten eraso salatu zuten. Ondorioz, Udalak eta Eraso

Aurkako Batzordeak protokolo instituzionala aktibatu zuten, biktimei zein ingurukoei arreta emateko bideak jarri eta emakumeen eskubideen urraketa salatzeko elkarretaratzea eginez plazan.

San Joan sua, segurtasun neurri bereziekin

Muturreko tenperatura altuen ondorioz ezarritako alarma gorria zela eta, segurtasun neurri bereziekin egin ziren San Joan bezperako ospakizunak Anoetan: plaza inguruko landaredia busti zen, sua ohi baino txikiagoa izan zen, sua garraiatzea debekatu zen eta 23:00etan erabat itzali zuen brigadak. Herritarrek zintzo bete zituzten arauak eta udako solstizioa modu seguruan ospatu zen. Ekainaren 24an, berriz, jubilatuen bazkaria egin zen; Udalak oroigarria banatu zien aurten 85 urte bete dituztenei eta ederki pasa zuten guztiek bazkalosteko dantzaldian.



Balance de las Fiestas de Anoeta y San Juan

Las fiestas arrancaron el 3 de junio con el txupinazo de Ttipi-Ttapa. Destacó el buen ambiente, pero el baño público sufrió destrozos vandálicos. Además, ante las denuncias de varias mujeres por agresión machista, el Ayuntamiento y la Comisión Contra las Agresiones activaron el protocolo de atención y repulsa. Por otro lado, la alarma roja por calor obligó a reducir el fuego de San Juan y apagarlo a las 23:00. El día 24 se homenajeó a los mayores de 85 años en la comida de jubilados.



LABURRAK



Lorezaintza lanak Udal brigadak hartu ditu bere gain

Urteetan herriko lorategi, berdegune eta auzokonposta guneen mantenu lana kanpo enpresa baten bidez kudeatzen aritu ondoren, Anoetako Udalak bere gain hartu ditu lan hauek eta maiatzaz geroztik zuzeneneko kudeaketa egiten hasi da.

Auzolanean egokitutako herri ibilbideen panel berriak instalatu dira

San Isidro egunean herritarrek auzolanean garbitu eta seinalizatutako bi ibilbideak ezagutzeko panel informatiboak jarri ditu Udalak herriko plazan eta kiroldegiko bidean (auditorio parean). Ibilbide motzak (laranja) 4 kilometro pasatxo ditu eta Ergoien Bailaratik Osintzuloraino doa, eta Alkizako erreka-ibilguari segika herrigunera itzultzen da. Luzeak (ibilbide morea), berriz, ia 7 kilometro ditu eta Ateaga base-rirra joan-etorri zirkularra egiten du. Bi bideek zailtasun tekniko txikia dute, edonor oinez ateratzeko modukoak.



Lasarbeko udal etxebizitza tasatuak: 10 etxe libre geratu dira eta salmenta zuzenean eskainiko dira

Lasarbe auzoko udal etxebizitza tasatuen zozketa eta esleipen prozedura amaitu ostean, 8 etxebizitza esleitu dira eta beste **10 saldu gabe geratu dira**. Hauen kasuan, ez da zozketarik egingo eta salmenta prozedura irekia eta zuzena izango da. Etxebizitza hauetako bat erosteko, interesa duten pertsonak baldintzak bete eta **Construcciones Aburuza** enpresaren bulegora zuzendu beharko dute beren erosketa-borondatea adierazteko.



Anoetako Udala udalerriko oinarritzko amiantoaren errolda garatzen ari da, herritarren osasunarekin eta ingurumenaren babesarekin duen konpromisoa berretsiz.

Anoetako Udala herriko oinarritzko amiantoaren errolda garatzen ari da, osasun publikoa eta ingurumena babesteko. Bureau Veritas enpresako teknikariek amaitu dute dagoeneko ikuskapen eta detekzio fasea, eta lehen planoak landu dituzte amianto dagoen edo egon daitekeen susmoa dagoen lekuekin, arrisku handieneko eremuak lehenetsi eta kentzeko planari ekiteko.

El Ayuntamiento de Anoeta está desarrollando el censo básico de amianto del municipio, ratificando su compromiso con la salud de la ciudadanía y la protección del medio ambiente.





Hizki-Marrazki 2026 lehiaketako sariak banatu dira

Anoetako Udalak eta Herri Ikastolak elkarlanean antolatutako Hizki-Marrazki Kontakizun Marraztuen Lehi-

aketaren sari-banaketa ekitaldia egin zen ekainaren 12an. LH3tik DBH4ra arteko ikasleek parte hartu dute idazteko eta marrazteko zale-tasuna sustatzen duen ekimen honetan. Udaletik zorionak eman nahi dizkiegu ikasle eta irakasleei egin-

dako lanagatik, eta eskerrak Maite Gurrutxaga, Asier Artola eta Gorka Salaberria epaimahaikideei, lanak genero-ikuspegitik aztertzeagatik. Saritutako kontakizun guztiak liburuxka batean jaso dira eta jada banatu zaizkie familiei.

Hogeit bat herritar elkartu dira HAPOaren aldaketarako lehen parte-hartze saioan




Ekainean egin zen udaletxeko areto nagusian Anoetako Hirigintza Antolamendu Plan Orokorren (HAPO) aldaketa burutzeko parte-hartze prozesuaren lehen saioa. Hitzordu hau azaroan udalbatzak hartutako erabakiaren jarraipena da; orduan onetsi zen, besteak beste, herritar-rrak aktibatzea aldaketa gauzatze-ko. Udalak eskerrak eman nahi dizkie saiora gerturatu zirenei prozesu hau indartzeagatik, eta beraien iritzi, ekarpen eta proposamenak helarazteagatik.

Alkartasuna taberna-jatetxea kudeatzeko deialdia hutsik geratu da

Anoetako Udalak urgentziazko prozedura bidez abiatutako Alkartasuna jubilatuen etxeko taberna-jatetxea ustiatzeko deialdi-ra ez da proposamenik aurkeztu. Ondorioz, abuztuan zehar itxita egongo da espazioa. Udalak irail-lean egingo du beste deialdi bat. Helburua herriko adinekoei eta herritar guztiei funtsezko gizarte eta aisialdi-zerbitzu honekin etenik gabe jarraitzea bermatzea da, bideragarritasun ekonomikoa errazten duten baldintzekin.

'Adi eta So!' Mahaia eta Udalak elkarbizitza eta prebentzioa indartuko dituzte jaietako gertakarien ondoren

Aurtengo herriko jaietan hainbat emakumerengan eragina izan zuten gertakarien eta ondoren sortutako zurrumurruen aurrean, Anoetako 'Adi eta So!' Mahaia protokoloa aktibatu eta Udalak komunitate-ikerketak bat sustatu du gertatutakoa elkarbizitzaren ikuspegitik argitzeko. Ikerketak emakumeek jasandako jokabideak egiaztatu ditu eta, behin prozesu hau amaituta, herriaren lehentasuna bizikidetza zein elkarren arteko errespetua indartzea izango da; horrekin batera, desinformazioa ekidin, indarkeria matxisten prebentzioa zorrotzu eta udal-protokoloak zein eragileen prestakuntza hobetuko dira etorkizuneko jai seguru eta berdinezaleak bermatzeko.





**“Herria asko hazi da,
eta gizartea ere asko
aldatu da”**

Santiago Canillas San Millán de la Cogolla (Errioxa, Espainia) herrian jaio zen 1941. urtean. “Euskarazko lehen hitz ezagunak han idatzi ziren”, kontatu du jarraian. Udalak omenaldia egin berri dio, berari eta beste hamaika laguni, aurten 85 urte egin dituztelako.

Espero zenuen?

Aurretik ere joan izan gara erretiratuen bazkaria eta omenaldia urtero egiten denez, espero nuen. Halere, polita da udala zurekin oroitzea.

Nola ezkondu zinen Anoetara?

Aurretik Tolosan izan nintzen bizitzen. Osaba-izebak eta lehengusu batzuk nituen han. Nire aita igeltseroa zen, baina niri ofizio hori ez zitzaidan gustatzen

eta Tolosara joateko aukera eskaini zidatenean, trena hartu eta joan egin nintzen.

Eta Tolosatik noiz egin zenuen Anoetara jauzi?

Soldaduska egin eta gero, Anoetako emakume batekin ezkondu nintzen. Hemen jarri ginen bizitzen, kooperatibako etxeetan.

Anoeta asko aldatuko zen, ezta?

Herria asko hazi da, eta gizartea ere asko aldatu da. Lehen batasun gehiago zegoela uste dut: gutxi asko, denok ezagutzen genuen elkar, eta talde izaera handiagoa zegoen. Egun, bakoitza bere kasa dabil. Baina bizi maila askoz ere altuagoa da orain.

Herrian aktiboa zara zu. Ttipi-Ttapan ere parte hartzen duzu, esaterako.

Alargun gelditu nintzen eta lagun batzuk Ttipi-Ttapanen inguruan hitz egin zidaten. Aukera polita da jendearekin harremana izateko, mugitzeko, kalera irteteko... Gomendatzen dut.

SANTIAGO CANILLAS:

“El pueblo ha crecido, pero ahora cada uno va a lo suyo”

Nacido en La Rioja en 1941, Santiago Canillas llegó joven a Tolosa y tras el servicio militar se mudó a Anoeta al casarse. El Ayuntamiento acaba de homenajearle por sus 85 años. “El pueblo ha crecido y el nivel de vida es mayor, pero antes había más unión”, reflexiona. Tras enviudar, se sumó a las marchas de Ttipi-Ttapa: “Es una gran opción para relacionarse y moverse; lo recomiendo”

